# INUZENTE, PALAZENTE, TX

Ahor ba, iñuzentien egunak ezustian harrapau gaitxu aurten be. Gu lo. Ingurukuak ostera, argi, guri adarra jotzeko prest.

Iñuzentien eguna gaur egunian edo oin dala berrogetakaz edo hirurogetakaz urte, antzera baten.

Urtiari amaieria emoteko inbenturik politxena izatiaz gaiñ, iñon kontura barre eitxeko aukerarik onena zan, Ta da.

Sasoi baten, zigarro puruak errebentatzeko petarduak saltzen egon ez arren, jentiak barre eitxeko zer eiñ asmatzen zeban, bai.

Batzuk oso osokuak zian: Esan bai hara juateko, beste hangua eitxeko, ta iñuzente iñuzente, juan ta eiñ. Gehixenguetan broma modura ta pozik hartzen zan iñuzente eitxiori, baiña txarrera hartu ta egunetan muzturrekin egoten zianak be bazeuazan.

Drogosuenak eguna noz helduko zaiñ egoten zian, egunak aurretik pentsau eziñik zelan ta nori jo porrua.

*Drogosuenak eguna noz helduko zaiñ egoten zian*

Euren buruak iñuzentetzat erakutsi ta danei aurria hartzen ahalegintzen zia-



GOZOTEGIA
DASTATEGIA
*Delicias*
- Berton egiten dugu
- Etxera eramaten dizugu

Zubiaurre, 2
Tfnoa. 17 15 67



Egunero zerbitzua:
ERMUA, EIBAR, MALLABIA, ZALDIBAR, BERRIZ, BILBO
Zama guztientzako eskualdeko zerbitzua
**ERANDIO GARRAIOAK**
Bulegoa: Zeharkalea, 27 • ☎ (943) 17 03 14 • **ERMUA**

TXALAPARTA Taberna
PATXI Taberna
Bar EGO-GAIN
Bar AITZGORRI
JAI ALAI Taberna
TB
TABERNARI BATUAK
HERGA Kafetegia
Bar GREDOS
SIRIMIRI
BRASILEÑA
GANBARA Bar
ZARAUZTARRA Jatetxea

# AKURRAK BUZTANA TENTE



Lepuan gaiñeko "monigotia" oso tradizionala da egun hontan.

nak be egon bazeuazan. Askok akorduan daukie Nemesio karnezeruari ez zeuala iñor gehixao eitxekorik. Harek goizian goiztik bere lepuan, brusari lotuta, periodiko orrixaz eindako moñeko haundi bat txintxilik ipintzen zeban ta ein daixala jentiak barre!.

Herrixan be orduko denporetan sobran ez, baiña danak eruaten zeben atzeko paratxokesian soka luze bati lotutako pote illaria, tunpa-tunpa amaiera bako danbarradan.

Egun horretan bakerik ez zebenak txakurrak zian. Hartu bai txakurra biren artian, ta buztanera kontserba pote mordua lotu lotu ein da gero, aindu eitxen zeben. Txakur gixajuaren zaunkak ta pote hotsak ikustekuak zian!.

ESTIBALITZ GONZALEZ



Bar CONTRASTE
San Pelaio

opariak
arropa informala
ELAINE
Karabixa 1. zbk. behea

IZAIRE
Ileapaindegia
Zubiaurre, 14 - 1° • Tfnoa 17 23 06
ERMUA

arral s.l. esklusibak
Luis Cañas • La Española azeituna
La Verja zumo eta Iturri kontserben BANATZAILEA
Goitondo Goikoa poligonoa - B-3 Pabiloia
Telefonoa: 17 60 75 • Mallabia